

# AÑARBEKO PRESA

babes handiagoa, ezagutza gehiago,  
informazio hobea.

## LA PRESA DE AÑARBE

mayor protección, más conocimiento,  
mejor información.

añarbe  
aguas  urak

Añarbeko presa: babes handiagoa, ezagutza gehiago, informazio hobea. / La presa de Añarbe: mayor protección, más conocimiento, mejor información.

## AÑARBEKO PRESA

Añarbeko presa -baita bertan egiten diren ustiapen-maniobrak ere- babes-elementu garrantzitsua da uholde-garaietan, Urumeako urertzean bizi diren herritarrentzat.

Egiten diren maniobrei esker, Añarbeko urtegia ur-bolumen handiak eutsi ahal izaten dira (milioika metro kubo), eta era horretan, ur-emari handiarekin jaisten denean, Urumeara iristea saihesten da. Ur-bolumen horiek urtegitik aterako dira, ibaiak horretarako aukera ematen duenean, eta inolako kalterik eragin gabe.

Añarbeko Urak-en jakitun gara urertzean bizi diren herritarrek presak eragin ditzakeen ondorioei begira kezka dutela, eta horregatik, babes- eta informazio-neurri berriak hartu ditugu.

## LA PRESA DE AÑARBE

La presa de Añarbe -así como las maniobras de explotación que en ella se realizan- constituye un importante elemento de protección ante inundaciones para los habitantes de la ribera del Urumea en situaciones de avenida.

Las maniobras que se realizan permiten retener grandes volúmenes de agua (millones de metros cúbicos) en el embalse de Añarbe, evitando que lleguen al Urumea cuando baja muy crecido. Esos volúmenes de agua se desembalsan cuando el río lo permite sin causar daño alguno.

En Aguas del Añarbe somos sensibles a la preocupación que los habitantes de las poblaciones ribereñas tienen sobre el efecto de la presa en estas circunstancias, por lo que hemos adoptado nuevas medidas de protección e información.




## PRESAREN KOKAGUNEA

Añarbeko presa Añarbe ibaiaren gainean dago eraikita; ez Urumea ibaiaren gainean. Ondorioz, Añarbe ibaiaren arroaren ekarpenei baino ezin die eutsi. Etenik gabe euria eginez gero, beheko ibilbidean, Urumearen guztizko emariaren %23 inguru izaten da.

## UBICACIÓN DE LA PRESA

La presa de Añarbe está construida sobre el río Añarbe, no sobre el río Urumea. Por tanto, sólo puede retener las aportaciones de la cuenca del río Añarbe que, en caso de llover de manera uniforme, representan únicamente el **23%** del caudal total del Urumea en su curso bajo.



## BABES HANDIAGOA

Prezipitazio handiko denboraldietan presak ahalik eta ur kopuru handienari eusteko duen ahalmena handitzeko helburuarekin, hainbat neurri hartu ditugu Añarbeko Urak-en:

# 1

Kantauriko Konfederazio Hidrologikoaren baimena lortu dugu presaren gainezkabidearen uhateak erabiltzeko; eta horri esker, **3.742.963 m<sup>3</sup>** gehiagori eutsi ahal izango diegu.

Se ha obtenido la autorización de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico para utilizar las compuertas del aliviadero de la presa, lo que nos permite retener **3.742.963 m<sup>3</sup>** más.

# 2


Presa oso-osorik betetzeari uko egin diogu, prebentziozko **796.375 m<sup>3</sup>** eta **1.747.864 m<sup>3</sup>** arteko babesari eutsita, urteko sasoiaren arabera.

Hemos decidido renunciar a llenar la presa por completo, manteniendo un resguardo preventivo de entre **796.375 m<sup>3</sup>** y **1.747.864 m<sup>3</sup>** según la época del año.

# 3

**24 orduko** epean, prebentzioz, **4.850.830 m<sup>3</sup>** gehiagora arte hustu ahal izango dugu, beheko hustubideetatik; eta hartara, babesa handituko dugu.

Podemos vaciar en **24 horas** de forma preventiva hasta **4.850.830 m<sup>3</sup>** más por los desagües de fondo y aumentar así el resguardo disponible.



Neurri horiei esker, uholde handiak izanez gero, presak **10.341.657 m<sup>3</sup>**-ra arteko bolumenari eutsi ahal izango dio aurrerantzean.

Gracias a estas medidas, en caso de avenidas importantes, la presa puede llegar a retener ahora un volumen total de **10.341.657 m<sup>3</sup>**.

## EZAGUTZA GEHIAGO

Presak **ur-hustuketarako lau sistema** ditu, beharrezkoa denean ur-bolumenak husteko:

## MÁS CONOCIMIENTO

La presa cuenta con **cuatro sistemas de desembalse** para evacuar volúmenes de agua cuando resulta necesario:



**4 Gainezkabidea**  
Aliviadero

**2 Eskuineko hustubidea**  
Desagüe de fondo derecho

**3 Howell balbulak**  
Válvulas Howell  
Ø400mm  
Ø700mm

**1 Emari ekologikoa**  
Caudal ecológico

**Ezkerreko hustubidea**  
Desagüe de fondo izquierdo

a

b

**1 Emari ekologikoaren irteera:** Añarbe ibaia egoera onean egon dadin, irteera honetatik **0,33 eta 1,66 m<sup>3</sup>/s** bitarte isurtzen dira etengabe eta derrigorrean.

**La salida del caudal ecológico:** con el fin de mantener el río Añarbe en buen estado, por esta salida se vierten de forma continua y obligada entre **0,33 y 1,66 m<sup>3</sup>/s**.

**3 "Howell" balbulak:** **400 eta 700 mm** diametroko bi balbula laguntzaila dira; hurrenez hurren, **3 eta 4,5 m<sup>3</sup>/s** isuri ditzaketenak.

**Válvulas "Howell":** son dos válvulas auxiliares de **400 y 700 mm** de diámetro, que pueden verter **3 y 4,5 m<sup>3</sup>/s**, respectivamente.

**2 Beheko bi hustubide:** eskuinekotik **23 m<sup>3</sup>/s**-ko emaria hustu daiteke; ezkerrekoan, berriz, bi irekigune daude, eta **33 m<sup>3</sup>/s**-ra arteko emaria hustu daiteke.

**Dos desagües de fondo:** por el derecho se puede desembalsar un caudal de **23 m<sup>3</sup>/s**, mientras por el izquierdo, que dispone de dos aberturas, se desagua hasta **33 m<sup>3</sup>/s**.

**4 Gainezkabidea:** "leiho" horiei esker, oso emari aldakorrak hustu daitezke, bi faktorearen arabera: gainezkabidearen beheko ertzaren gainean ur-laminak daukan garaieraren arabera eta bertan dauden uhateen irekitze-angeluaren arabera.

**Aliviadero:** estas "ventanas" permiten desaguar un caudal muy variable en función de dos factores: la altura que alcance la lámina de agua sobre el "labio" del aliviadero y el grado de apertura de sus compuertas.

## INFORMAZIO HOBEA

Ibai ertzean bizi diren herritarren lasaitasuna bermatze aldera, Añarbeko Urak-ek informazio zabala eskaintzen die, haiek ere ur-emaria asko handitzen denean presan gauzatzen dituen maniobrei eta bertako egoerari buruzko xehetasunak ezagutu ditzaten.

# 1

**Egoera-partreak:** Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre egiteko Zuzendaritzak "abisu horia" iragartzen duen guztietan, interesa duten Auzo-elkarte guztiei presaren egoera-partea eta maniobren berri zuzenean ematen die Añarbeko Urak-ek, agintariari eta eskumena duten erakundeek horren guztiaren berri ematen dienean bertan.

**Partes de situación:** Cada vez que la Dirección de Atención de Emergencias del Gobierno Vasco emite un "aviso amarillo" por precipitaciones persistentes, Aguas de Añarbe envía a las Asociaciones de Vecinos interesadas los partes de situación y maniobras, directamente y al mismo tiempo que a todas las autoridades y entidades competentes.

## MEJOR INFORMACIÓN

Con el fin de contribuir a la tranquilidad de los habitantes de las zonas ribereñas, Aguas del Añarbe proporciona una amplia información que permite conocer en detalle la situación y las maniobras que efectúa en la presa en caso de crecidas.

# 2

**Presaren zuzeneko irudiak:** Añarbeko presaren jardueraren berri zuzenean jaso daiteke gure web-orriaren bitartez: [www.añarbe.es](http://www.añarbe.es). Irudietan, presa nola usten den ikus daiteke; esan nahi baita, Añarbe ibaira emariak isurtzen diren ala ez. Eta emaria husteko erabiltzen den hustubidea ere ikus daiteke.

**La presa en directo:** La actividad en la presa de Añarbe puede seguirse en directo a través de nuestra página web, [www.añarbe.es](http://www.añarbe.es). Las imágenes permiten comprobar los desembalses de la presa, es decir, si se vierten o no caudales al río Añarbe, y el órgano de desagüe por el que se desembalsa.

MAILEN IZENDAPENA ETA ESANAHIA / DENOMINACIÓN DE LOS NIVELES				
Izena Denominación	-	<b>Oharra</b> Aviso	<b>Alerta</b> Alerta	<b>Alarma</b> Alarma
Egoera Situación	<b>Normala</b> Normal	<b>Maiz</b> Frecuente	<b>Tarteka</b> Ocasional	<b>Salbuesenez</b> Excepcional

KONTRAKO GERTAKARIA / FENÓMENO ADVERSO				
Prezipitazioa 24 orduan (l/m <sup>2</sup> ) Precipitación en 24 h (l/m <sup>2</sup> )	< 60	60 - 80	80 - 120	≥ 120
Urumearen garaiara Ereñozuko estazioan (cm) Altura del Urumea en la estación de Ereñozu (cm)	< 150	≥ 150	≥ 200	≥ 250

AÑARBEEK BIDALTZEN DU / AÑARBE REMITE				
Egoera-partea Parte de situación	<b>Ez / No</b>	<b>Bai / Sí</b>	<b>Bai / Sí</b>	<b>Bai / Sí</b>
Prentsa-oharra Nota de prensa	<b>Ez / No</b>	<b>Aztertzeko</b> A estudiar	<b>Bai / Sí</b>	<b>Bai / Sí</b>



# 3

**Ikustaldi-programa:** Añarbeko Urak-ek presara ikustaldia egiteko eta bertako sistemak, instalazioak, gailuak eta egiten diren maniobrak zehaztasunez ezagutzeko aukera ematen dio interesa duen orori.


**Baduzu interesik?**

Jar zaituz gurekin harremanetan, **943 213 199** telefono-zenbakira deituta, edo bidali mezua helbide honetara: **oficinas@agasa.es**. Eta behar beste informazio emango dizugu.

**Programa de visitas.** Aguas del Añarbe ofrece a cualquier persona interesada la posibilidad de visitar la presa y conocer en detalle sus sistemas, instalaciones y dispositivos y las maniobras que se efectúan.

**¿Está interesado?**

Póngase en contacto con nosotros en el **943 213 199** o envíe un mensaje a: **oficinas@agasa.es** y le informaremos.





Argitalpen honen helburua, hain zuzen, Urumea ibaiaren ertzeko herritarrei Añarbeko presa edukitzeak dakartzan abantailen eta uholde-garaietan edo ibaiaren emaria asko handitzen denean egiten diren ustiapen-maniobren berri ematea da.

La finalidad de esta publicación es informar a la población ribereña del Urumea de las ventajas que supone la existencia de la presa de Añarbe y de las maniobras de explotación que se efectúan en los casos de avenidas o grandes crecidas del río.

**Aguas del Añarbe - Añarbeko Urak S.A.**

Errotaburu pasealekua, 1 - 6.  
20018 Donostia

T: 943 213 199  
F: 943 216 017

oficinas@agasa.es

**añarbe**  
aguas **urak**

[www.añarbe.es](http://www.añarbe.es)